

BALOREZKO PROPOSAMENA

Proiektu hau arrakastarantz bideratzeko, bezeroentzat balorea sortzen duten elementuak kontutan hartu ditugu. Eskainiko dugun zerbitzuak atentzioa deituko die erosleei, azken finean, elektrizitatean ia zentimorik gastatu gabe, arropa zikinak garbitzeko aukera paregabea eskaintzen duen zerbitzu bakarra baita. Bizikleta estatiko baten itxura eta mekanismoa bera izaten jarraitzen du, baina aurrealdean garbigailu bat gehiturik. Bizikletak lurrian loturik daude, eta hala, hodi batzuetatik iristen da ur garbia eta irten ur zikina. Bezeroen erabilera atseginagoa izateko, tablet bat dauka eskuen mailara. Bertan, este baterako, "Netflix, Spotify eta Youtube" aplikazioak bila daitezke, kirola egiten den bitartean, bideo bat ikusi edo musika entzun ahal izateko. Labadorak funtziona ahal izateko pedalei eman behar zaien antzera, tableta erabil ahal izateko ere energia sortu beharko du bezeroak.

Tramankulu hau bizikleta eliptiko arruntetatik ezberdindu da, duen funtzio liluragarriagatik eta era berean, arazo fisikorik ez duenarentzat, zein mugitzeko arazoak dituztenentzat diseinaturik dagoelako. Beraz, ez dago arazorik produktu hau erabiltzeko, edonork egokitu dezakeelako bere beharretara.

Beste alde batetik, bada jendea fakturak kudeatzeko zailtasunak edukitzen dituen eta buruhausteak izaten amaitzen duena. Arazo horrekin amaitzen lagundu dezake BiziCleanera joateak, hilabete amaieran iritsiko den uraren eta elektrizitatearen faktura ez baita batere handia izango.

Oso kontutan hartu dugu ordainketa prezioaren saila eta denen poltsikoetara ahalik eta gehien egokitzen saiatu gara. Azkenean modurik onena honako hau izango zela iruditu zaigu; zenbat eta denbora luzeagoan erabili, bukaeran ordaindu beharreko prezioa handiagoa izango da. Eskuen eta hanken bitartez mugitu daitezkeenez bizikletak, nekaturik bazaude bietako batekin garbitu dezakezu arropa. Irrikan bazaude berriz, esku eta oinekin aritu zaitezke erritmo bizian. Horrela, faktura baxuagoa izango duzu. BiziCleanen bazkide izateko edo ez izateko aukera ematen dugu. Bazkideek, hilabetean nahi adina aldiz erabili ahal izango dute gure zerbitzua, 25 euro besterik ordainduz. Garbiketa egin ostean, makinan bazkideek txarteltxo sartu beharko dute eta ondoren erabili duten bizikletaren zenbakia jarri, garbigailua desblokeatu eta arropak hartu. Bazkidea ez denak berriz, beraien bizikletaren zenbakia ezarri eta hark esango lioke zenbat ordaindu beharko lukeen. Minutuko 0,05 euro ordaintzen da. Txanponak sartu ostean, bere arropak hartu ahal izango ditu. Bestalde, unibertsitateko ikasleei %15eko beherapen berezi bat egingo geniekeen hilabeteko txartela erosi ezkeror.

Txartelaren eskuragarritasunari dagokionez, online bidez, zein lokalean bertan egin zaitezke bazkide. BiziCleanen inguruko Informazio guztia gure webgunean lortu daiteke. Hiru kapitaletan daude erabilgarri tramankulu txundigarri hauek, ahal den moduan unibertsitateen inguruan.